



V. ERANSKINA

PROBA EBALUAGARRIEN BERRIKUSPEN-PROZESUA (IKASTURTEAN ZEHAR ETA IKASTURTE-AMAIERAN) ETA ERREKLAMAZIO-PROZESUA (BARNEKOA ETA KANPOKOA) AZKEN KALIFIKAZIOEN ETA, IGAROTZEKO ETA/EDO TITULAZIOA EMATEKO ERABAKIEN AURKA

Aplikazio-eremua

Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasketak ematen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan aplikatuko dira jarraibide hauek.

Ikasleek ebaluazio objektiboa izateko duten eskubidea

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko **201/2008 Dekretuan** ezarritakoaren arabera, gurasoek eta ikasleen legezko tutoreek, ikasleak adingabeak direnean, eskuratu ahalko dituzte bai ebaluazio-dokumentu ofizialak, baita haien seme-alabei egiten zaizkien ebaluazio-dokumentu ofizial guztiak eta ebaluazioei buruzko ebidentzia guztiak ere, ikastetxeko antolakuntza eta funtzionamendu-arauek ezarritakoaren arabera. Orobat, azalpenak eskatu ahal dizkiete irakasleei etengabeko ebaluazioaren emaitzei buruz, arloren baten ikasturte-amaierako ebaluazioari buruz, eta mailaz igotzeko erabakiei buruz.

Ikastetxeek modu publikoan jakinarazi beharko dute zer prozeduraren bidez eska diezaieketen ikasleek, gurasoek edo legezko tutoreek ikaste-prozesuaren inguruan jaso duten informazioa argitzeko irakasleei edo tutoreei. Era berean, modu publikoan jakinaraziko dute zer bide erabili behar den kalifikazioen inguruko erreklamazioak egiteko, egoki jotzen badute.

Irakasle taldeak ikasleen ebaluazio-prozesua eta kalifikazioak zehazten dituzten ebidentziak erregistratu beharko ditu.

Gurasoek edo legezko ordezkariak eta ikasleek errendimenduaren ebaluazioan eragina izan duten ebidentzia eta agiri guztiak eskuratu ahal izango dituzte, bai eta, hala eskatzen badute, haien kopia



bat ere, zuzendu ondoren.

Era berean, alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte eta ebaluazioaren emaitza berrikusteko eskatu ahal izango dute. Ikastetxeek ezarriko dute zer prozedura jarraitu behar den berrikuspena eskatzeko, horretarako epeak eta baldintzak zehaztuz. Berrikuspen hori egiterakoan, kontuan izango da irakasle guztientzako lotesleak direla curriculum ofiziala, ikastetxeko curriculum-proiektua, ikasgelako programazioak eta, ikasturte-hasieran publiko egindako ebaluazio-, kalifikazio- eta igotze- irizpideak



Ebaluazio-proben zaintza eta sarbidea

Ikasleek eta, ikasleak adingabekoak direnean, gurasoek edo ikasleen legezko tutoreek aukera izango dute azken ebaluazioan eragina izango duten proba eta ariketa guztiak ikusteko, horiek zuzendu ostean.

Ikasturtearen edozein unetan eskuratu ahal izango dira ebaluazio-prozesuaren ebidentzia dokumentalak. Antolakuntza eta Jarduera Araudiak edo Barne Araudiak jasoko du dokumentu horiek eskuratzeko prozedura.

Ebaluazio-prozesuaren ebidentzia dokumentalak ikastetxean gordeko dira ikasturtea amaitu arte. Epe hori amaituta, suntsitu ahal izango dira edo ikasleei entregatu, betiere aurkeztu den erreklamazio bat ebazteko kontuan hartu beharko ez balira.

Erreklamazio bat ebazteko kontuan izan beharreko ebidentzia dokumentalak gorde egin beharko dira haien inguruan administrazioaren ebazpen bat edo ekintza judizial bat egitea posible den bitartean; horrelakoetan, irmoki ebatzi arte gordeko dira.

Berrikuspen- eta erreklamazio-prozedura

1.- Proba ebaluagarrien BERRIKUSPEN-prozedura

1.A.- Ikasturtean zehar (ebaluazio ez ofizialak, kalifikazio partzialak)

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko **201/2008 Dekretuaren 9.2 artikulua**k hau ezartzen du: **ikasleek... “azken kalifikazioaren gain eragina izango duten lanak, ariketak eta probak zuzendu ondotik ikusteko aukera bermatuko...”**.

Hori dela eta, ikastetseek, **Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo Barne Araudian**, prozedura bat izan beharko dute arautzeko, ikastetxearen barruan, zer prozedura jarraituko den ikasturte osoan ikasleen ikaskuntza-prozesuari buruz egiten diren lan, ariketa eta proba ebaluagarrien berrikuspena errazteko. Ikastetseek berrikuspen hori egiteko prozedurari



buruz beharrezkoa den informazioa eman eta zabalduko dute.

Lanak, ariketak eta proba ebaluagarriak **ebaluazioa eta kalifikazioa egin duten pertsonen edo haien legezko ordezkariak** berrikusiko dituzte. Lan, ariketa eta proba ebaluagarriak, bai eta kalifikazio partzialak ere (ebaluazio ez-ofizialak) berrikus daitezke, baina **ezin da haiei buruzko erreklamaziorik aurkeztu**. Akta ofizialetan agertzen diren azken kalifikazioak eta maila igarotzeko eta/edo titulua lortzeko erabakiak soilik erreklama daitezke.

1.B.- Ikasturte-amaieran (ebaluazio ofizialak, azken kalifikazioak)

Ikastetxeek **berrikusteko eskubidea** (irakaslearen aurrean) eta azken kalifikazioen aurkako **barne-erreklamazioak aurkezteko eskubidea** (ikastetxeko zuzendariaren aurrean) bermatuko dituzte, eta, hala badagokio, beharrezkoa izango da hori egitea **kanpo-erreklamaziora** jo aurretik (Hezkuntzako dagokion Lurralde Ordezkaritzan).

Ikasleek edo haien legezko ordezkariak bi lanegun izango dituzte berrikuspena egiteko eta azken kalifikazioen haien aurkako barne-erreklamazioa egiteko.

Berrikuspena errazteko, ikastetxeek, azken kalifikazioekin batera (ohikoak eta, hala badagokio, ezohikoak), irakasleak ikasleen eskura egongo diren lekua eta ordua jakinaraziko dituzte. Ordutegiak bat etorri beharko du, gutxienez, irakasleen ohiko egonaldi-ordutegiarekin, azken kalifikazioak eman eta/edo jakinarazi eta ondoren berrikuspenak eta erreklamazioak aurkezteko bi egunetako bakoitzean.

Berrikuspena ebaluazioa eta kalifikazioa egin duten pertsonen edo haien legezko ordezkarien aurrean egingo da. Berrikuspena ezin da izan kalifikazio kuantitatibo edo kualitatiboa jartzea bakarrik; aitzitik, ikasleak egindako huts edo okerrak adierazi ere egin behar dira, edo kalifikazioa arrazoitu. Eta amaitzeko, **kalifikazioa mantentzeari edo aldatzeari buruzko** erabaki arrazoitua eman beharko da.

Berrikuspena egiteko eskaera **arlo edo jakintzagaia ez gainditzeari buruzko erabakiarekin** lotuta badago eta, **bereziki, mailaz ez igotzeari edo titulua ez lortzeari buruzko erabakiarekin**, zehatz-mehatz adierazi behar da zein diren **lortu gabeko konpetentzia-mailaren edo etaparen helburuak** edo gutxieneko garapen-maila. Orobat, hala



badagokio, zehatz-mehatz adierazi beharko da zer oztopo dituen ikasleak prestakuntza-aurrerapen egokia lortzeko, ikaslea hurrengo mailara igaro bada zailtasun horiek izanik ere.

OHARRA:

IDATZIZKO PROBAK EZ DIREN BESTE TRESNA BATZUEN BIDEZKO EBALUAZIOA

Ebaluazio-prozesua idatzizko probak (azterketak, ariketak) ez diren beste tresna batzuen bidez egin bada, era xehatuan azaldu beharko dira idatziz zer ebidentziaren arabera erabaki den ez dela gutxieneko ikaskuntza lortu arlo edo jakintzagai jakin bat gainditzeko, hurrengo mailara igarotzeko eta/edo titulua lortzeko.

2.- ERREKLAMAZIO-prozedura azken kalifikazioen aurka (ebaluazio ofizialak)

2.A.- Barnekoa, ikastetxeko zuzendariaren aurrean

Azken kalifikazioaren xede diren ariketak berrikusi zein ez, ikasleek edo haien legezko arduradunek aukera izango dute **bi laneguneko epean** jakintzagai baten edo batzuen azken kalifikazioaren aurkako erreklamazioa aurkezteko, eta, hala badagokio, igarotzeari eta/edo titulazioari buruzko erabakiaren aurka ere bai, **ikastetxeko zuzendariari aurkeztutako idatzi arrazoitu baten bidez**. Automatikoki ezetsiko dira, kalifikazioak jakinarazi ondoren, bi **laneguneko** epetik kanpo aurkeztutako erreklamazioak.

Jakintzagai baten azken kalifikazioaren aurkako erreklamazioa eginez gero, ikastetxeko zuzendariak erreklamazioaren xede den **jakintzagaiaz arduratzen den departamentuko buruari** helaraziko dio erreklamazioa. Saileko **departamentuko** buruak sailaren **ezohiko bilerara** deituko du, eta bilera horren **akta** egingo da. Bilera horretan, saileko **departamentuko** kideek eztabaidatuko dute ebaluazioa eta kalifikazioa aurreikusitakoaren arabera egin diren eta, ezarritako ebaluazio-irizpideak zuzen aplikatu diren. Saileko **departamentuko** buruak, **ebazpen-proposamena duen txosten arrazoitu bat** igorri beharko dio zuzendariari **erreklamazioak aurkezteko aldia amaitu eta 24 orduko epean**. Kide bakarreko sailen kasuan, bilera jakintzagaia iren irakaslearen eta ikasketaburuaren artean egingo da.



Igarotzeari eta/edo titulazioari buruzko erabakiaren aurkako erreklamazioa eginez gero, ikastetxeko zuzendariak **ikaslearen talde ofizialeko tutoreari** helaraziko dio erreklamazioa. Tutoreak irakasle taldearen **ezohiko bilera** egiteko deialdia egingo du, eta bilera horren **akta** idatziko da. Tutoreak **ebazpen-proposamena duen txosten arrazoitu bat** igorri beharko dio ikastetxeko zuzendaritzari, **erreklamazioak aurkezteko aldia amaitu eta 24 orduko epean**.

Jakintzagai baten azken kalifikazioaren aurkako erreklamazioa baietsiz gero eta, ondorioz, **igarotzeari eta/edo titulazioari buruzko erabakia** aldatu badaiteke edo aldatu behar bada, ikastetxeko zuzendariak **ikaslearen talde ofizialeko tutoreari** helaraziko dio ebazpena. Tutoreak irakasle taldearen **ezohiko bilera** egiteko deialdia egingo du, eta bilera horren **akta** idatziko da. Tutoreak **ebazpen-proposamena duen txosten arrazoitu bat** igorri beharko dio ikastetxeko zuzendaritzari, **erreklamazioak aurkezteko aldia amaitu eta 24 orduko epean**.

Barne-erreklamazioa **zuzendariak ebatziko du**, era arrazoituan, eta **erreklamatzailerari jakinaraziko zaio** Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean ezarritako moduan. Erreklamazioa baietsiz gero, zuzendariak **dagokion aktak aldatzeko** agindua emango du.

Ikastetxeko zuzendaritzak eginiko barne-erreklamazioaren ebazpenari **kanpo-erreklamazio bat** aurkeztu ahal izango zaio **dagokion lurralde-ordezkaritzako titularraren aurrean**.

2.B.- Kanpokoa, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren aurrean

Barne-erreklamazioaren ebazpenarekin ados egon ezean, ikasleek edo haien legezko ordezkariak ikastetxeko zuzendariaren ebazpenaren aurkako erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute, ebazpena jakinarazi eta **bi laneguneko epean**. Horretarako, idatzi arrazoitu bat aurkeztu beharko dute ikastetxeko zuzendaritzaren aurrean, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari igortzeko.

Ikastetxeko zuzendariak gehienez ere **hiru eguneko epean** igorriko dio erreklamazioaren idatzia Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako titularrari. Horrekin batera, erreklamatzailerak aurkeztutako dokumentazioa igorriko dio, baita erreklamazioaren xede den kalifikazioaren



oinarri diren ebidentzia guztiak ere.

Horien artean izango dira, besteak beste, ikastetxearen jarraipenaren bitartez barne-erreklamazioan sortutako dokumentazioa, erreklamazioan sortutako beste edozein gorabehera, erreklamazioaren xede diren jatorrizko ariketak, programazioa jasotzen duen sailaren dokumentazioa, eskatutako gutxieneko konpetentzia-maila, ebaluazio-irizpideak, eta abar.

Lurralde-ordezkaritzako titularrak ebatziko du erreklamazioa, **Hezkuntzako Ikuskaritzak aldeztutako txosten arrazoitua egin** ondoren, zeina gehienez ere **hamar egun naturaleko** epean eman beharko baita.

Txosten hori egiteko, Hezkuntzako Ikuskaritzak kontuan izango ditu jarraibide hauek, ikastetxeko curriculum-proiektua, dena delako arlo edo jakintzagaiaren programazio didaktikoa, ebaluazio-irizpideak, eska daitezkeen gutxieneko konpetentzien garapen-mailak, jendaurrean jarritako kalifikazio-irizpideak, kalifikazioaren oinarri diren ebidentziak, ebaluazio-prozesuan erabilitako tresnak eta prozedurak eta ikaslearen ariketa, lan, proba eta azterketak, eta, hala badagokio, baita beste ikasle batzuenak ere, konparazio bat egin eta ikasle erreklamatzaileraren kalifikazioak modu objektiboan balioztatu ahal izateko.

Txosten horretan, Hezkuntzako Ikuskaritzak proposamen arrazoitua egingo du hauei buruz: erreklamazioa osorik edo partzialki baiestea, ezestea, prozeduraren atzeraeragina proba eta/edo ebaluazio-ariketa berriak egiteko, edo ikastetxeak jendaurrean jarritako kalifikazio-irizpideetan aurreikusitakoarekin bat ez datozen kalifikazioak aldatzea.

Lurralde Ordezkaritzako titularrak erreklamazioa era arrazoituan ebatziko du, gehienez ere hiru eguneko epean, Ikuskaritzaren txostena jasotzen duenetik, eta ebazpena jakinaraziko die, ikastetxeko zuzendaritzaren bidez, bai ikasleari, bai kalifikazioa eskatzen zaion arloko irakasleari, bai taldeko irakasle ekipoari.

OHARRA:

IDATZIZKO PROBAK EZ DIREN BESTE TRESNA BATZUEN BIDEZKO EBALUAZIOA

Ebaluazio-prozesua idatzizko probak (azterketak, ariketak) ez diren beste tresna batzuen



bidez egin bada, era xehatuan azaldu beharko dira idatziz zer ebidentziaren arabera erabaki den ez dela gutxieneko ikaskuntza lortu arlo edo jakintzagai jakin bat gainditzeko, hurrengo mailara igarotzeko eta/edo titulua lortzeko.

2.C.- Gora jotzeko errekurtsua, Hezkuntzako sailburuordearen aurrean

Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako titularraren ebazpenaren aurka, **gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango da Hezkuntzako sailburuordearen aurrean**, hilabeteko epean.